



Hau da aste honetako euskararen pilula!

“recusación” euskaraz, nola?

Recusación > errekusazio, errekusatz

Horrela definitu zen 2015eko Prozedura Zibila Hiztegian “epaileen errekusazio” (“epaileak errekusatz” > “recusación de jueces”):

Auziko alderdiek eta Fiskaltzak duten baliabidea, epaileak auziaz arduratzeari utz diezaion haren inpartzialtasuna zalantzan jartzeko arrazoiak daudenean.

ADIBIDE BATZUK

- “Especialidades del incidente de **recusación** en juicios verbales. Otros casos especiales” > “**Errekusazio**-intzidentearen berezitasunak hitzezko judizioetan. Bestelako kasu bereziak”
- “La **recusación** suspenderá el curso del pleito hasta que se decida el incidente de recusación” > “**Errekusazio**ak auziaren aribidea etengo du, harik eta errekusazio-intzidentea erabaki arte”
- “De concurrir alguna causa de **recusación** deberá manifestarlo en ese momento” > “**Errekusatz**-arrazoietakoren bat gertatuz gero, une horretan adierazi beharko duela”

ITURRIA

- [Epaitegietako lexikoa eta eredu judizialak](#)
- Epaibar
- [Euskalterm](#)